



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Basauri Bonuaren oinarri arautzaileak

Alkateak 2024ko martxoaren 8ko 1028/2024 Dekretuaren bidez 2024ko Basauri Bonuaren oinarriak onetsi zituen. Hona hemen:

Dirulaguntza-lerroa	KONTSUMORAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK – BASAURI BONUA
Aurrekontu-partida	33 4310 48099
Partidaren deskribapena	TRANSF. ARR. FAMILIEI - EKONOMIA- ETA MERKATARITZA-SUSTAPENA
Zenbatekoa	200.000,00 euro
Gehieneko zenbatekoa	300.000,00 euro
Laguntza emateko prozedura	ZUZENEAN EMATEA

1. Xedea

«Basauri Bonua» programaren oinarri hauen helburua da Basauriko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduetako kontsumoa diruz laguntzea, eta, horretarako, udalerriko atxikitako establezimenduetan egindako erosketetan hobari bat emango da, tokiko kontsumoa sustatzeko eta familiei ekonomikoki laguntzeko.

Bonuei esker, herritarrei mesede egiten zaie, erosketetan deskontua lortzen dutelako, eta merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduek ere onura lortzen dute, bonuak dakarren deskontuaren zatia jasotzen dutelako Udaletik.

Hemen araututako dirulaguntzak norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidez ematen dira, objektibotasun-, gardentasun-, berdintasun- eta publizitate-printzipioekin bat etorrira.

2. Basauri bonua kanpainara atxiki daitezkeenak

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak jaso ahalko dituzte jendeari arreta ematen dieten merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduek. Hain zuzen ere, Basauriko mugartean eta EJZn alta emanda daudenak, Basauriko udalerriko kuotarekin eta soldatapeko 10 langile baino gutxiagorekin.

3. Diruz lagunduko diren zenbatekoak

Bonu bi egongo dira, gastu-gaitasunaren arabera:

- 4 euro-koak, 6 euro-ko gastu-gaitasunarekin.
- 10 euro-koak, 15 euro-ko gastu-gaitasunarekin.

NAN, IFZ edo AIZ bakoitzeko, 60 euro-ko gastu-gaitasuna duten bonuak erosi ahal izango dira, gehienez ere. Bonu horiek ezingo dira dirutan kobratu, eta beren zenbatekoa ere ez da inola ere itzuliko. Gastuak 6 eta 15eurokoa edo handiagoa izan behar du, hurrenez hurren, bonu bakoitzeko. Onuradun bakoitzak establezimendu bakar batean edo gehiagotan erabili ahal izango ditu, erosketa batean edo gehiagotan, eta konbinatu ahal izango dira, gehieneko mugara iritsi arte.

4. Establezimenduak programa atxikitzea: betebeharrak eta eskabideak aurkeztea

4.1. Establezimenduek atxikitzeko betebeharrak

Programarekin bat egin dezakete merkataritza-, ostalaritza- edo zerbitzu-sektorean jarduera bat izan, jarraian adierazitako baldintzak bete eta zabalik dagoen establezimendu bat duten pertsona fisiko edo juridikoek, bonuak ordainbide gisa onartuta. Jarduerak bete beharreko baldintzak:



- a) EJZn alta emanda daudenak, kuota Basaurin dutenak.
- b) Basaurin kokatuta daudenak.
- c) Soldatapeko 10 langile baino gutxiago dituzten establezimenduak.
- d) Zerga-betebeharrak dituzten administrazio publikoekiko betebeharrak egunean dituztenak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere egunean dituztenak. Merkataritza Sailak ofizioz egiaztatuko du Basauriko Udalarekiko zerga-egoera.

Bete beharreko bestelako formaltasunen kalterik gabe, Basauriko Udalak auke-ra izango du enpresa eskatzaileak ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko beharrezko iritzitako dokumentazio gehigarria eskatzeko, edozein unetan. Ez dira aintzat hartuko ez onartuko aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten entitateek aurkeztutako eskabideak.

4.2. *Atxikitze- epea*

Jardueren titularrek 2024ko apirilaren 2tik 11ra (biak barne) atxiki ahal izango dira Basauri Bonua programara.

4.3. *Eskabideak aurkeztea*

Programara atxiki nahi duten establezimenduen titularrek behar bezala bete beharko dute eskaera-inprimakia. Agiri horretan, besteak beste, erantzukizunpeko adierazpenak onartu beharko dira. Inprimakia webgune honetan egongo da eskuragarri: <https://bono.basauri.eus>. Gainera, eskatutako dokumentuak atxiki beharko dira:

1. Zorrik ez izateari buruzko ziurtagiriak, Gizarte Segurantzak eta Foru Ogasunak emandakoak.
2. Nahikoa izango da eskabide-inprimakian jasotako erantzukizunpeko adierazpena betetzea.
3. Erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntzak ematea arautzen duen udal-ordenantzaren 10. artikuluan jasotako debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

Eskaeran berriazko baimena ematea Udalak egiaztatu ahal izateko interesdunak emandako banku-datuak egiazkoak direla. Baimenik ematen ez badu, banku-erakundeak sinatutako eta zigilatutako ziurtagiria aurkeztu beharko du, eta agiri horretan adieraziko da Basauriko Udalari adierazitako banku-kontuaren titularra dela.

Nolanahi ere, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek zigilatutako banku-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Programara atxikitzeko eskaera egiteak deialdi honen oinarrietan zehazten diren baldintzak berriaz eta formalki onartzea dakar.

Eskaerak behar bezala osorik betetzen ez badira edo eskatutako dokumentazioarekin batera aurkezten ez badira, pertsona edo erakunde interesdunari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Gainera, berriaz adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako moduan ebazpena eman ondoren.

Eskatzaileak eskaeran jasotako daturen bat faltasutuzen badu, dagokion zehapen-arau-bidearen mende egon ahal izango da.

Ez da beharrezkoa izango dagoeneko administrazio publikoaren esku dauden dokumentuak edo datuak aurkeztea, APELren 53.1.d) artikulua xedatzen duen moduan.

Programara atxikitzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskaerak aztertzeko alde aurreko faseari ekingo zaio, oinarrietan ezarritako baldintzak benetan betetzen dituztela egiaztatzeko. Horretarako, aurkeztutako dokumentazioa eta erantzukizunpeko adierazpen gisa adierazitako inguruabarrak egiaztatu ahal izango ditu Basauriko Udalak, eta egoki iritzitako egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol-neurri guztiak egiteko eskubidea izango du, baliabide publikoak behar bezala aplikatzen direla zaintze-



ko eta programa hau behar bezala garatzen eta aplikatzen dela egiaztatzeko. Atxikitako establezimenduek Udalak eskatutako informazio guztia eman beharko dute.

Baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, programara atxikitako establezimenduen zerrenda argitaratuko da Basauriko Udalaren webgunean: <https://bono.basauri.eus>

Kanpainari atxikitako establezimendu bakoitzari erabiltzaile bat eta pasahitz pertsonalizatua esleituko zaizkio plataformara sartzeko. Plataforman, esleitu zaizkien deskontu-bonuak eskuragarri izango dituzte, eta horren bidez trukatu beharko dituzte bonuak salmenta egitean edo zerbitzua ematean.

Enpresa eskatzailearekin harremanetan jartzeko, berak eskabidean adierazitako helbide elektronikoko edo telefono-zenbakira joko da.

5. Atxikitako establezimenduen betebeharrak

Programarekin bat egiten duen establezimenduak, atxikitzea sinatzean, honako betebeharrak hauek berenganatuko ditu:

- Basauriko Udalari datuetan eman daitekeen edozein aldaketaren berri ematea. Bereziki, eskatzailearen helbideari, jarduerari eta banku-datuei dagozkien datuetan emandako aldaketak.
- Publizitate-euskarriak jaso eta establezimenduan jartzea, ondo ikusten diren toki batean.
- Bonuak produktu/zerbitzuekin trukatzeko konpromisoa hartzen du webgunearen bidez, bere erabiltzailearekin eta pasahitzarekin, bezeroek ordaintzeko bitarteko gisa erabili nahi dituztenean.
- Bezeroei faktura laburtua edo tiketa ematea, non ordaintzeko modua agertu beharko den (alegia, ordainketa bonu bidez egin dela islatu beharko da).
- Establezimenduak modu aktiboan eskainiko dizkie bonuak bezero guztiei eta saltzean edo zerbitzu ematean trukatuko ditu. Bonuak 16 urtetik gorako bezero guztiei eskainiko zaizkie, horiek agortu arte, eta pertsonaren nortasuna egiaztatzeko konpromisoa hartuko du bere ardurapean.
- Ezin izango dituzte bonuak atxiki edo erreserbatu, ez eta zenbait artikuluko edo zerbitzuko saltzeko ere. Halaber, bonuak ezin izango dira erabili opari-bonuak saltzeko.
- Tiketaren edo justifikazio-fakturaren kopia bat gordetzea, NAN zenbakia eta erosketan trukatuako bonuen kopurua adierazita.
- Establezimenduak jendearentzat irekita egon beharko du, kanpainak irauten duen bitartean, merkataritza-ordutegian.
- Erosleei diruzko itzulketarik ez egitea, erosketaren eta bonuaren balioaren artean aldea badago.
- Bonu bidez eskuratutako ondasunen itzulketa-politikari dagokionez, establezimendu bakoitzak finkatuko du itzulketa horiek egiteko epe eta modua. Bonu bat edo birekin eskuratutako produktua itzuli nahi izanez gero, diruz lagundutako zenbatekoa ezingo da dirutan bueltatu: establezimendu bereko beste produktu bat eskuratu ahaliko du onuradunak, edo, bestela, dirutan itzuliko zaio hark benetan ordaindutako zenbatekoa. Bigarren kasu horretan, gainera, Udalari bonuaren balio gabetzearen berri eman beharko zaio, eta establezimenduak jasotako kopurua bueltatu beharko du.
- Basauri Bonuak eta beste erakunde batzuen bonuak ez dira metagarriak izango erosketa berean, eta bonu-mota bakoitza faktura sinplifikatu desberdin bati lotu beharko zaio.
- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako printzipioak eta betebeharrak betetzea, zeinaren bidez Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen baita; eta 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako dena. Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen dis-



kriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.

Betebehar horiek beteko ez balira, berehala emango zaio baja programan, eta establezimenduari dagozkion bonuak birbanatu egingo dira parte hartzen duten gainerako establezimenduen artean.

6. Bonuak banatzeko prozedura

Bonuak berdin banatuko dira atxikitako establezimendu guztien artean, establezimendu bakoitzak eskatutako bonu-mota kontuan hartuta, establezimendu bakoitzeko gehieneko truke-zenbateko gisa.

7. Kanpainaren indarraldia

Programa honi atxikitako establezimenduetan bonuak trukatzeko epea 2024ko apirilaren 22tik maiatzaren 19ra izango da, biak barne, eta webgunean argitaratuko da.

Alabaina, epe hori amaitu ondoren bonu guztiak agortu ez badira, onuradunek ahalik eta bonu gehien kontsumi ditzaten, bigarren truke-aldi laburrago bat egin ahal izango da. Sobera edo itzulita dauden bonuak ekitatiboki birbanatuko dira maiatzaren 15etik 18ra bitartean hala eskatzen duten eta lehen truke-aldian adjudikatutako bonuen gutxienez % 90 trukatu dituzten establezimenduen artean.

Udalak dagozkion egiaztapenak egingo ditu eta bonuak establezimendu horien artean birbanatuko ditu, maiatzaren 21etik ekainaren 2ra bitartean trukatu ahal izan ditzaten.

Epe hori amaitutakoan, ordaintzeko bitarteko gisa duten balioa galduko dute.

8. Atxikitako establezimenduek aurkeztu beharreko justifikazioa eta ordaintzeko prozedura

Basauriko Udalak establezimenduari edo jarduerari erosketetan erabilitako bonuen zenbatekoa ordaindu ahal izateko, trukaturako bonu guztiek dagokien tiketa edo faktura izan beharko dute lotuta, NAN zenbakia eta erosketan trukaturako bonuen kopurua adierazita. Horien zenbatekoa bonuen batura baino handiagoa edo berdina izan beharko da, dirulaguntza justifikatzeko.

Ez dira baliozkotuko truke-epea amaitzean dagokion tiketa edo faktura lotuta ez duten bonuak, ezta bonuaren eta dagokion tiketaren arteko lotura zalantzaezinik ez dutenak ere.

Bonuak trukatzeko kanpaina amaitu ondoren, trukaturako bonuen guztizko zenbatekoa 3.000 euro edo handiagoa bada, Udalak dagokion zenbatekoa diru bihurtu ahal izateko, establezimenduak Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu (dirulaguntzei buruzko udal-ordenantzan adierazten den moduan).

Laguntzak emateko unean, ofizios egiaztatuko da establezimenduek Basauriko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituztela.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, pertsona edo erakunde interesdunari hamar egun baliouduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo eskatutako agiriak aurkezteko. Gainera, berariaz adieraziko zaio, hala egiten ez badu, ordainketa-eskaerari uko egin diola ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako moduan ebazpena eman ondoren.

9. Aurrekontu-kontsignazioa

Basauriko Udalak, 2024ko ekitaldian zehar, 300.000,00 euro gehienez bideratuko ditu deialdi honetako diru-zuzkiduretar, honako partida honen kontura: 33 4310 48099 Transf. Arr. Familiei - Ekonomia- eta merkataritza-sustapena.



10. Laguntzak ordaintzea

Laguntza horiek ez dira itzuli behar izango.

Diruz lagundutako zenbatekoak ordainduko zaizkio programari atxikitako pertsona fisiko edo juridikoari.

11. Aplikatzeko araudia

Prozedura arautuko dute onetsitako Oinarri Arautzaileek beraiek; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamen-
duak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua); eta udal dirulagun-
tzak emateko indarreko Ordenantzak.

12. Onuradunei buruzko informazioaren konfidentzialtasuna

Basauriko Udalak bere gain hartzen du laguntza hauen onuradunei buruzko infor-
mazioa programaren eremutik kanpoko xedeetarako erabilia izango ez dela bermatzeko
konpromisoa.

Basaurin, 2024ko martxoaren 11n. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren